



# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

## TARTEKO MAILAREN (B1) ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO AZTERKETAREN ZEHAZTAPENAK

### IKASLE LIBREAK

### ***AZTERKETAREN HELBURUA***

Probaren helburua da azterketariak komunikatzeko duen ahalmena eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea.

Azterketariak, ohiko egoeretan, baita ez hain ohikoetan ere, elkarreraginean, informazioa jasotzen eta sortzen hizkuntza segurtasun eta malgutasun nahikoarekin erabiltzeko zer-nolako gaitasuna duen ebaluatzeko gaitasun-proba da. Gai orokorreki buruz edo nor bere intereseko gaiet buruz, ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko eta sortzeko gaitasuna agertu beharko du azterketariak, hizkuntza-baliabide errazen erreperitorio zabala arrazoizko mailan menderatuz, hizkuntza estandarren aldaera formal eta informalean.

Tarteko Maila honen probaren mailak Europako Kontseiluaren B 1 mailaren eskumenak hartuko ditu erreferentziatzat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-Markoan maila hau zehazten den moduan.

Informazio gehiagorako ikus: Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien Tarteko Mailari dagokion Curriculumua: [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net)



## **AZTERKETAREN DESKRIBAPENA, PUNTUAZIOA ETA ADMINISTRAZIOA**

- Azterketak lau proba edo atal izango ditu: irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena.
- Azterketaren iraupena: 2 ordu eta 45 minutu, honela banatuta: 2 ordu eta 25 minutu irakurritakoaren ulermenari, entzundakoaren ulermenari eta idatzizko adierazpenari dagozkion probetarako, eta 20 minutu ahozko adierazpenerako. Azken proba hori beste saio batean egingo da.
- Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria eskuratzeko, atal edo proba bakoitza gainditu beharko du azterketariak. Gutxieneko puntuazioa: azterketariak %60ko puntuazioa lortu beharko du gutxienez, bai idatzizko probaren osotasunean (irakurritakoaren ulermena, entzundakoaren ulermena, idatzizko adierazpena), hau da, 60 puntutik 36, eta bai ahozko proban ere, 20 puntutik 12.
- Nolanahi ere, %60tik beherako puntuazioren bat orekatu ahal izango da idatzizko probaren atalen batean, baldin eta puntuazio txikiago hori atal bakar batean ematen bada eta gutxienez %50era iristen bada.
- Ahozko adierazpenaren atala ezingo da orekatu eta %60ko puntuazioa lortu beharko da gutxienez: 20 puntutik 12.



## AZTERKETAREN DESKRIBAPENA

### IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu - %25	12 puntu	50 minutu

Helburuak	Testu-mota posibleak	Ariketa-mota posibleak
<p>Idatzi baten puntu nabarmenak bereiztea, baita ondorioak eta arrazoiak zein diren ere.</p> <p>Idatzi bat zehatz-mehatz ulertzea.</p>	<p>Mezuak (SMSak, posta elektronikoak, eskutitzak), bai izaera sozialekoak, bai pertsonalak, informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak elkarrekin trukatzeko</p> <p>Oinarrizko eskutitz formalak</p> <p>Informazioa helarazteko edo azalpenak emateko txostenak</p> <p>Lan-iragarkiak</p> <p>Tresnak erabiltzeko eta prozedurak jarraitzeko argibideak eta arauak</p> <p>Iragarki publikoak eta oharrak</p> <p>Prospektuak</p> <p>Publizitate-iragarkiak</p> <p>Liburuxka eta gida turistiko eta komertzialak</p> <p>Ohiko txostenak</p> <p>Aisialdirako gidak, katalogoak</p> <p>Web orriak</p> <p>Errezetak</p> <p>Egunkariak eta aldizkariak: erreferente ezagunak dituzten albisteak, espezializatu gabeko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, "zuzendariari eskutitzak"</p> <p>Biografiak</p> <p>Horoskopoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• erantzuna: aukera anitzekoak</li> <li>• egia-gezurra</li> <li>• informazio-transferentzia</li> <li>• ordenan jartzeko lanak</li> <li>• elkarrekin lotzea: (egoera edo epigrafe bakoitza idatzi batekin lotzea / esaldi bakoitza zein testutakoa den aukeratzea)</li> <li>• hutsuneak betetzea: (perpausak hutsuneetan txertatzea / zerrenda edo sail batean emandako hitzekin hutsuneak betetzea, hitzak zenbakia duen laukitxo batera eramanez / testua osatzea, aukera egokiarekin hutsuneak betetz / testua osatzea, hitz bakar batekin hutsuneak betetz)</li> <li>• erantzun bakarreko galdera irekiak</li> </ul>



## ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2 edo 3	20 puntu - %25	12 puntu	35 minutu

Helburua	Testu-mota posibleak	Ariketa-mota posibleak
<p>1. Gai orokorrean edo nork bere interesekoei buruz argi eta modu estandarrean ahoz emandako testu gehienek edukiak ulertzea</p> <p>2. Erregistro estandarrean eta modu argian emandako eztabaida, hitzaldi eta parte-hartzeetako informazio zehatza eta xehetasunak ulertzea, nahiz eta saio luzeak izan, baita narrazioetan edo argibideetan emandakoak ere.</p>	<p>Aurrez aurreko elkarrizketa arruntak, informalak</p> <p>Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan</p> <p>Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatzeko eta emateko, eta arazo zehatz eta jakin-jakinak konpontzeko transakzioak (administrazioko izapide errazak, erreklamazioak, itzulpenak)</p> <p>Mezu, deskribapen eta narrazioen transmisioa</p> <p>Taldeko bilera eta elkarrizketetako elkar eragiteak, interakzioak</p> <p>Gai ezagunei buruzko eztabaidak hizkuntza estandarrean</p> <p>Kultura gai ezagunen eta eguneko eguneko gaien inguruko iritzi, iruzkin eta arrazoitzeak</p> <p>Argibideak, aholkuak eta jarraibideak</p> <p>Aurkezpenak</p> <p>Gai orokorrean buruz argi eta garbi egituratutako hitzaldiak eta konferentziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>erantzuna: aukera anitzekoak</li> <li>egia-gezurra</li> <li>informazio-transferentzia</li> <li>entzutezko testu zatiak batzuk besteekin lotzea</li> <li>ordenatze lanak</li> <li>erantzun bakarreko galdera irekiak</li> <li>oharren eskema: hutsuneak betetzea</li> </ul>



## IDATZIZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 +15) puntu %25	12 puntu	60 minutu

Helburua	Testu-mota posibleak	Ariketak
1. Informazioa emateko, eskatzeko edo egiaztatzeke eta bizipenak, interesak, erreakzioak, sentimenduak edo gertaerak xehetasun nahikoarekin azaltzeko testuak idaztea, eta idatzian ustez garrantzitsuenak diren aldeak azpimarratzea.	<p>artikulu labur eta errazak ohiko gaien inguruan, eskolako egunkari eta aldizkarietarako</p> <p>ohiko gertaeren inguruko txosten laburrak</p> <p>gai zehatzen inguruko iritzia</p> <p>jarduerei buruzko kontakizun laburrak</p> <p>eguneroko gai, plan edo gertaera zehatzen inguruko deskribapen errazak</p> <p>eskutitz pertsonalak</p> <p>eskutitz formalak (lan-eskaerak, aurkezpen-gutunak, erreklamazio-eskutitzak)</p> <p>inprimakiak (instantziak, erreklamazioak, eskabideak)</p>	<p>testu motzago bati erantzunez edo argibideei jarraituz idaztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• intereseko gai baten inguruko artikulu xume bat eskolako egunkari edo aldizkarietarako</li> <li>• eskutitz / mezu elektronikoko pertsonala / mezu elektronikoko formala eduki hauetakoren bat izan dezakeena: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ jardueren kontakizun laburra</li> <li>▪ gai jakin eta zehatz baten inguruko iritzia</li> <li>▪ eguneroko gai baten inguruko deskribapen erraza</li> <li>▪ gertaera jakin eta zehatz baten (bidaia, etab.) inguruko deskribapena</li> <li>▪ plan eta erabakien deskribapena</li> </ul> </li> </ul> <p><b>180 hitz gutxi gorabehera</b></p> <p><b>PUNTUAZIOA : 15</b></p>
2. Argibideak eta informazioa ematea edo helaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• mezu elektronikoko laburrak</li> <li>• ohar eta iragarpen errazak, informazio, argibide eta jarraibideekin</li> </ul>	<p>Ohar, iragarpen edo mezu erraza, informazio zehatz eta jakinarekin</p> <p><b>80 hitz gutxi gorabehera</b></p> <p><b>PUNTUAZIOA : 5</b></p>



## AHOZKO ADIERAZPENA

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (8+12) puntu %25	12 puntu	20 minutu

Helburua	Testu-motak	Ariketak
<p>Modu laburrean azaldutako egoera, gertakari edo albiste baten aurrean informazioa adieraztea eta helaraztea.</p> <p>Ikuspuntua adieraztea.</p>	<p>Bakarrizketa, beste azterketari bati edo batzuei zuzendua</p>	<p>Emandako gaia (testu laburra, argazkia edo azalpenak dituen grafikoa...) jaso eta haren aurrean <b>bere ikuspegia adierazi edo eman beharko du azterketariak</b> beste azterketari-mintzakideari/ei zuzenduz: zertaz den, zer planteatzen duen...</p> <p>Ariketa egiteko behar den informazioa ulertzeko denbora: 2 minutu</p>
<p>Iritziak, planak, adostasunak eta adostasunik ezak adieraztea eta horiei eustea, azalpen eta ohar egokiak eskainiz; bestelako aukerak alderatzea eta kontrastatzea.</p> <p>Ohiko gaien inguruko informazio zehatza jasotzea eta trukatzeko, nahikoa segurtasunez.</p>	<p>Beste azterketari batekin edo batzuekin elkarrizketa</p>	<p><b>Azterketariak elkarren artean hitz egingo dute</b>, galderak egingo dituzte eta erantzunak eman, hitza hartu eta emango dute informazioa trukatzeko, ohiko gaien inguruko iritziak adierazteko, arazo baten arrazoiak azaltzeko, bestelako aukerak alderatzeko eta kontrastatzeko.</p> <p>Azterketariak orri, txartel edo fitxa bat jasoko dute. Han zehatuko da ariketa eta ariketa hori egiteko beharrezkoa den informazioa.</p> <p>Ariketa egiteko beharrezkoa den informazioa ulertzeko denbora: minutu 1.</p>



## IDATZIZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEAK	EBALUATUKO DA
Komunikatzeko egokitasuna eta eraginkortasuna	<p>Ebaluatuko da</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ulergarritasuna</li> <li>• eskatutako ataza egin den eta bete den</li> <li>• erregistro estandarrari –formalari eta informalarri– hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitu zaion</li> </ul>
Koherentzia	<p>Ebaluatuko da</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ea testu osoa eta betea idatzi den eta hartzaileak hala jasotzen duen</li> <li>• informazio esanguratsua eta baliagarria ematen den</li> <li>• mezua hartzen duenak zer dakien eta zer informazio duen kontuan hartzen den</li> </ul>
Kohesioa	<p>Informazioaren eta ideien antolaketa ebaluatuko da, irizpide hauek oinarri hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• lokailuen erabilera egokia</li> <li>• erreferentzia mekanismoak</li> <li>• puntuazio-zeinuak</li> <li>• egituren erabileran nahikotasuna eta ugaritasuna</li> </ul>
Hiztegia	<p>Ebaluatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• nahikoa hiztegi aberatsa erabili den eta testua errepikakorregia gertatzen ez den</li> <li>• nahikoa hiztegi zehatza erabili den eta ez den zalantza, ezbaia eta indefinizioa sortzen</li> <li>• testu idatzia egokia den eskatu den atazari edo egitekoari erantzuteko: nori zuzendua den / hartzailea, testuinguru soziolinguistikoa, testuak bete behar duen funtzioa</li> </ul>
Zuzentasuna	<p>Ohiko funtzioak betetzeko, mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak zenbateraino menderatzen dituen ebaluatuko da. Funtzio hauek, hain zuzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• perpausen osaketa: hitzen ordena eta bat-etortzea</li> <li>• morfologia-elementuak (aditz-jokoak, deklinabidea) egoki erabiltzea</li> <li>• aditz-denborak eta aspektuak zuzen erabiltzea</li> <li>• egitura sintagmatikoen erabilpena (aditz, izen eta adjektiboen osagarriak)</li> <li>• ortografia</li> </ul>



## AHOZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDEA	EBALUATUKO DA
Komunikatzeko egokitasuna eta eraginkortasuna	<p>Ebaluatuko da</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ulergarritasuna</li> <li>• eskatuta ataza egin eta bete den</li> <li>• erregistroa hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitu zaion</li> <li>• hiztegia eta egiturak zehaztasunez erabiltzen dituen eta erabilera horretan nahikoa ugaritasun erakusten duen</li> </ul>
Kohesioa eta jarioa edo etorria	<p>Ebaluatuko da</p> <p><b>bakarrizketan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• informazioaren eta ideien antolaketa</li> <li>• loturen eta erreferentzialtasunaren erabilera (juntagailuak, izenordainak, etab.)</li> <li>• esan nahi dena adierazteko behar besteko erritmoan mintzatzeko gaitasuna</li> <li>• konpentsazio estrategiez baliatzeko gaitasuna</li> </ul> <p><b>elkarrizketan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• elkar eragiteko estrategiak aplikatzea, hala nola, hitza hartzea, lankidetzan aritzea, argibideak eskatzea...</li> <li>• komunikazioa ez eteteko behar besteko erritmoarekin mintzatzeko gaitasuna</li> <li>• konpentsazio estrategiez baliatzeko gaitasuna</li> </ul>
Zuzentasuna	<p>Ohiko funtzioak betetzeko, mailari dagozkion hizkuntza-baliabideak zenbateraino menderatzen dituen ebaluatuko da. Funtzio hauek, adibidez,</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• esaldiak eraikitzea (hitzen ordena)</li> <li>• amaierak (morfologia)</li> <li>• aditz-formak (denborak eta aspektuak)</li> </ul>
Ahoskera / doinua	<p>Ebaluatuko da</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• balio fonologikoen eta haien funtzio adierazgarrien erabilpena</li> <li>• doinua: xede-hizkuntzako estandarretara egokitzea</li> </ul>



## ARIKETA-MOTA DESBERDINEN ADIBIDE PRAKTIKOAK

Ataza eta ariketa adibideak martxoan zehar esekiko dira [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) web orrian.

## PROBA EGITEAREKIN ETA PROBAREN ADMINISTRAZIOAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT GAI

<p>➤ <b>Proba egin ahal izateko baldintzak</b> Tarteko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko Azterketa egin ahal izateko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntzan.</p> <p>➤ <b>Deialdiak</b> Deialdi bakarra izango da; maiatzean edo ekainean egingo da deialdi hori. Edozein moduz ere, interestuek Hezkuntza Sailburuordetzak argitaratuko duen ebazpen edo agindura jo behar dute behin-betiko informazioa eta xehetasunen berri jasotzeko. Ebazpen edo agindu hori 2010 urteko urtarrilean edo otsailean argitaratuko da ohiko web orrietan.</p> <p>➤ <b>Proba ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea</b> Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke proba. Horretarako aldez aurretik jakinarazi beharko du hori interesatuak dagokion eskolan.</p>	<p>➤ <b>Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.</b> Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein ikaslek, ofizial zein librek, uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin ahal izango du azterketa egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere.</p> <p>Dagokion departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.</p>
--	--

## Gomendio batzuk

<p><b>Probaren aurretik</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gogora ezazu HEOeko agiria eta NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketako gelan eskatutakoan.</li> <li>• Ziurtatu probaren eguna, ordua eta gela eta antolatu garaiz iristeko. Gogoan izan behin proba hasitakoan ez dela inor onartuko gelan.</li> </ul>	<p><b>Proban zehar</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ematen du astia ariketa bakoitza egiteko. Komenigarria izaten da errepasso orokor bat ematea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea.</li> <li>• Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla</li> </ul>
---	--



ziurtatu.

- Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak.
- Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere Ahozko ulermenaren zatian.



## INDARREAN DEN ARAUDIA

Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko Probak legean eta administrazioan arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- **2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.**
- **1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.** Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.  
<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>
- **46/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa.** EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako- oinarrikoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.  
[http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver\\_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000088794&CONF=/config/k54/bopv\\_c.cnf](http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000088794&CONF=/config/k54/bopv_c.cnf)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako Tarteko Mailari dagokion **Curriculum**a.
- EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Tarteko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko **Azterketaren Zehaztapenen** dokumentua.
- Hezkuntza Sailburuordearen **Ebaluazio Ebazpena**. Ebazpen horren bidez arautuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako deialdiak eta probak 2009-2010 ikasturtean.

### Azterketaren maila.

Azterketaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- **1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.** Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00465-00473.pdf>



- **46/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa.** EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailletako- oinarrikoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculuma ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.

[http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver\\_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000088794&CONF=/config/k54/bopv\\_c.cnf](http://www.euskadi.net/cgi-bin/k54/ver_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000088794&CONF=/config/k54/bopv_c.cnf)

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako Tarteko Mailari dagokion **Curriculum**a.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu\\_2046/c6\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html)

- EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Tarteko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko **Azterketaren Zehaztapenen** dokumentua.

- Europako Erreferentzia Markoa. Erreferentziako ohiko mailak; eskala orokorrak 41. orrian.

[http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/es/contenidos/informacion/euro\\_marko/eu\\_euro\\_mar/adjuntos/europako\\_markoa.pdf](http://www.habe.euskadi.net/s23-4728/es/contenidos/informacion/euro_marko/eu_euro_mar/adjuntos/europako_markoa.pdf)

## Informazioa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria: [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net)

Beste informazio gune bat.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu\\_2046/c6\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dic6/eu_2046/c6_e.html)

Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria. Web nagusitik irits daiteke horietara.